

Alkate jaunak, 2021/06/30 dataz, honako Ebazpena eman du:

“0934 ZB.KO DEKRETUA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, herritarrek administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko duten eskubidea ezartzen du, horietarako sarbidea erraztuz. Eskubide hori erabiliko dela bermatzeko, Legeak berariaz jasotzen du 12. artikuluan administrazio publiko guztiek interesdunen eskura jarri behar dituztela beharrezkoak diren sarbideak, bai eta zehazten diren sistemak eta aplikazioak ere.

Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta ez dauden subjektuek eskubide hori benetan erabili ahal izateko, Administrazioak laguntza eman beharko die eskubide hori erabiltzen, batez ere identifikazio eta sinadura elektronikoiari, eskabideen aurkezpenari eta benetako kopiak lortzeari dagokienez.

Berdintasun printzipioari jarraiki, pertsona guztiek sarbide bera izan behar dute administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzuetarako, baliabide elektronikoa erabiltzen dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Horrela, pertsonak administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideen katalogoan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, horietako bat da administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikoen erabileran laguntza jasotzea. Hori dela eta, sektore publikoaren eraldaketa digitalaren ibilbide-orriak arrakala digitala gainditzeko beharra jasotzen du, bitarteko elektronikoen erabileran herritarrei laguntza jasotzeko eskubidea aitortuz.

Horrela, agindu horiek betetzeko, interesdunen identifikazio eta sinadura elektronikoiari dagokionez, bai aipatutako legearen 12. artikulua, bai sektore publikoaren jardura eta funtzionamenduaren Erregelamendua baliabide elektronikoen bidez onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 30. artikulua aurreikusten dute interesdunak ez baditu administrazio-prozeduran identifikatzeko edo sinadura elektronikorako behar diren baliabide elektronikoa, gaitutako funtzionario publikoek egin ahal izango dituztela, horretarako duten sinadura elektronikoko sistema erabiliz.

Era berean, eta benetako kopia emateari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 27. artikulua aurreikusten du administrazio publikoek benetako kopiak egin ahal izango dituztela gaitutako funtzionario publiko baten bidez edo administrazio-jardura automatizatu baten bidez.

Bai interesdunen identifikaziorako eta sinadura elektronikorako, bai benetako kopiak egiteko, administrazio publikoek, besteak beste, toki-erakundeek, gaitutako funtzionarioen erregistro bat izan beharko dute. Erregistro hori guztiz elkarreragingarria izango da eta gainerako administrazioetakoekin lotuta egongo da. Erregistro edo sistema baliokide honetan, gutxienez, erregistro gaitetan laguntza bulegoetan zerbitzuak ematen dituzten funtzionarioak egon beharko dira.



Aurrekoa ikusita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12. eta 27. artikuluekin bat etorriz, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 30. artikulua, bitarteko elektronikoen bidez sektore publikoaren jarduera- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzen duena, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. a), d), h) eta s) artikuluetan Alkatetzari esleitutako eskumenen arabera, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Sortzea Oiartzungo Udaleko Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa. Erregistro horretan, honako hauek egongo dira inskribatuta:

- Interesdunak identifikatzeko eta sinadura elektronikoa egiteko gaitutako funtzionarioak.
- Dokumentu publiko administratibo edo pribatuen benetako kopiak egiteko gaitutako funtzionarioak.

Erregistro hori Idazkaritza Sailak kudeatuko du.

Erregistro hori Udalaren Sarbide Nagusiko egoitza elektronikotik sartuko da, gaikuntzen baliozkotasuna egiaztatzeko.

Bigarrena.- Jasotzea erregistroan gaitutako funtzionarioen datu hauek:

- a) Nortasun Agiri Nazionala, AIZ edo pasaporteak.
- b) Funtzionarioaren izen-abizenak.
- c) Atxikituta dagoen unitate administratiboa.
- d) Betetzen duen lanpostua, izena eta kodea adierazita.
- e) Gaitutako funtzionarioen erregistroan alta emandako eguna.
- f) Gaikuntza zer izapidetarako baimenduta dagoen.
- g) Erregistroan baja emandako eguna.
- h) Gaikuntza bertan behera uzteko arrazoia.

Hirugarrena.- Herritarrak identifikatzeko eta sinatzeko baimena lortzeko, honela jokatzeko:

- Herritarrak, identifikatzeko, indarrean dagoen nortasun-agiri nazionala aurkeztuko du, edo, atzerritarra bada, AIZ, jatorrizko herrialdean ondorio baliokideak dituen identifikazio-agiria edo pasaporteak.

- Herritarrak espresuki baimendu beharko du bere identifikazioa eta autentifikazioa, eskatzen duen bitarteko elektronikoen bidezko administrazio-jarduera bakoitzerako. Horretarako, dekretu honen eranskinean agertzen den inprimakia bete eta sinatu beharko du. Inprimaki hori eskuragarri egongo da sarbide-puntu orokorraren egoitza elektronikotan eta herritarrek eskubidea erabil dezaketzen zentro edo bulegoetan.

- Egindako izapidea egiaztatzen duen dokumentazio guztia emango zaio herritarrari, bai eta berariazko baimen-agiriaren kopia bat ere, beteta eta sinatuta.

Eskatutako laguntza-zerbitzua hau ematea eragozten duten inguruabarrak badaude, horren berri emango zaio interesdunari, eta arrazoituta jasoko da, dagokion eginbidearen bidez. Eginbide horren kopia emango zaio interesdunari.

Laugarrena.- Oiertzungo Udaleko funtzionarioak bakarrik inskribatu ahal izango dira erregistro horretan, baldin eta udalean zerbitzu aktiboan badaude eta eginkizunak benetan betetzen badituzte. Bi baldintza horiek bete beharko dituzte erregistroan izena ematen duten bitartean.

Ondorio horietarako, benetako eginkizuntzat hartzen da dagokion lanaldiaren barruan lanpostuari dagozkion eginkizunak modu arruntan eta ohikotasunez betetzea, barnean direla atsedenaldiak, oporrak, baimenak eta aldi baterako ezintasun-egoerak.

Bestalde, funtzionario publikoek, dagoeneko inskribatuta egon arren, deskribatutako baldintzaren bat betetzen ez badute zerbitzu aktiboan ez beste egoera administratiboren batean daudela deklaratzegatik edo, egoera horri eutsi arren, udalean zerbitzua emateari utziko diotelako, Gaitutako Funtzionario Publikoen Erregistroan baja eman beharko zaie berehala.

Nolanahi ere, funtzionario publikoari erregistroan baja emanen zaio, udaleko beste lanpostu batera atxikitzen direnei, baldin eta lanpostu horretan gaitua izaten jarraitu behar ez badute.

Bosgarrena.- Oiertzungo Udaleko (DIR3: L01200631) funtzionario hauek gaitzea interesdunen identifikazio, sinadura elektronikorako eta benetako kopiak egiteko, eta horretarako sortutako erregistroan inskribatzea:

IZEN-ABIZENAK	NA	LANPOSTUA	HABILITAZIO MOTA
Jasone Susperregi Odriozola	1598466H	Administraria	Osoa
Belen Goia Landa	15994029J	Administraria	Osoa
María Teresa Arvide Urdampilleta	72433605G	Administraria	Osoa
Miren Josebe Iburguren Aduriz	44126907T	Administraria	Osoa
Larraitz Aristizabal Lekuona	35773905G	Administraria	Osoa
María Teresa Alzugaray Urdampilleta	15982860E	Administraria	Osoa
Irati Isasa Otaegui	45194604H	Administraria	Osoa
Maria Cristina Brit Oyarzabal	15986588R	Administraria	Osoa

Gaikuntzak ondorioak izango ditu ebazpen hau egoitza elektronikoan argitaratzen den egunetik, eta mugarik gabe luzatuko da emandako gaikuntza zuzendu, aldatu edo errebokatzeke ebazpena bide beretik argitaratzen den egunera arte.

Seigarrena.- Erregistro horretan inskribatuta dauden funtzionario publikoek, betiere, Oiertzungo Udaleko enplegatu publikoaren ziurtagiri elektronikoa izan beharko dute. Hala ere, ondorio horietarako udalak gaitu dezakeen beste edozein sistema erabil dezakete.

Zazpigarrena.- Gaitutako funtzionario publikoek ez dute inolako erantzukizunik izango ez interesdunek aurkeztutako dokumentazioaren edukiaren gainean, ez interesdunek

adierazitakoaren egiazkotasunaren gainean, ez eskabide, izapide edo prozedura bakoitzean eskatutako betekizunak Lbetetzearen gainean.

Kasuan kasuko gaiaren edo prozeduraren arabera eskumena duten departamentuek egin beharko dituzte behar diren egiaztapenak, eta hori guztia, ekarritakoaren edo aitortuaren faltsutasunagatik interesdunek izan ditzaketen erantzukizun penal, zibil edo administratiboen kalterik gabe.

Zortzigarrena.- Oiartzungo Udaleko egoitza elektronikoan eta web orrian argitaratzea gaitutako funtzionarioen identifikazioa eta baita horiek egin ditzaketen jarduketan eta izapideen zerrenda, bai eta laguntza horiek emateko bulegoa.

Informazio hori etengabe eguneratuta egon beharko da, eta udalaren ardura izango da informazio hori berrituta mantentzeko egin beharreko aldaketak egitea.”

Eta horren berri ematen dizuegu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako Epaitegian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta Administrazio Publikoen Prozedura Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsuak aurkezteari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean,
Idazkariak,

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

Jasone Susperregi Odriozola
Belen Goia Landa
María Teresa Arbide Urdampilleta
Miren Josebe Ibarguren Aduriz
Larraitz Aristizabal Lekuona
María Teresa Alzugaray Urdampilleta
Irati Isasa Otaegui
Maria Cristina Brit Oyarzabal
Done Eztebe plaza, 1 .
20180 OIARTZUN

ERANSKINA
HERRITARRAREN BERARIAZKO BAIMENAREN EREDUA, FUNTZIONARIO
GAITU BATEK IDENTIFIKA ETA SINA DEZAN

INTERESDUNAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA INTERESADA	
Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
NA/DNI:	Sexua / sexo: E G
Helbidea / Dirección:	
K.P./ C.P.:	Herria / Municipio:
Telefonoa / Teléfono:	E-posta:

Eskaera egiten dut: Nire izenean / En mi nombre
Solicito: Beste baten izenean / En calidad de representante

ORDEZKATUTAKO PERTSONA FISIKO / EN REPRESENTACIÓN DE PERSONA FÍSICA
(norbere izenean arituz gero EZ BETE / NO RELLENAR cuando se realiza la solicitud en su propio nombre):

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	NA / DNI	Sexua / Sexo <input type="checkbox"/> G <input type="checkbox"/> E
Helbidea / Dirección:	K.P. / C.P.	Herria / Municipio:
Telefonoa / Teléfono:	E-posta:	

*Kasu honetan ahalorde eskriturak erantsi beharko dira edo Udalean interesdunarekin batera aurkeztu ordezkaritza emateko (Apud-Akta) / En este caso habrá que adjuntar las escrituras de poder u otorgar la representación (Apud-Acta) junto con la persona interesada en el Ayuntamiento

ADIERAZTEN DU / MANIFIESTA QUE	
Ez duela identifikazio eta sinadura elektronikoko ziurtagiririk, eta, BAIMENA EMATEN DUELA , oraingoan bakarrik, funtzionario publiko gaituak identifikatzeko eta autentifikatzeko, izapide hau egiteko: Que no dispone de certificados de identificación y firma electrónica y AUTORIZA únicamente en esta ocasión, su identificación y autenticación mediante funcionarios públicos habilitados para la realización del siguiente trámite:	
Izapide edo jarduketa elektronikoa / Trámite o actuación electrónica:	
Prozedura / Procedimiento:	
Identifikatuta dagoen honako funtzionarioari / Al/a funcionario/a con identificación	
Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NA / DNI:

Interesduna

Gaitutako funtzionarioa

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – www.oiartzun.eus

DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA	INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL
Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, honako hau jakinarazten da:	De acuerdo con lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, se informa:
1. Datuen Babesaren arduraduna Oiarzungo Udala da, P2006800C IFKrekin; posta-helbidea: Done Eztebe plaza 1, 20180; telefono-zenbakia: 943490142; helbide elektronikoa: oiartzun@oiartzun.eus. Datuak babesteko ordezkariekin harremanetan jar zaitezke dpo-dpd@oiartzun.eus helbide elektronikoa.	1º El Responsable de Protección de Datos es el Ayuntamiento de Oiarzun, con CIF P2006800C, con dirección postal en Plaza Done Eztebe, 1 C.P. 20180 y teléfono 943490142 y dirección de correo electrónico oiartzun@oiartzun.eus. Puede contactar con el Delegado de Protección de datos en el correo electrónico dpo-dpd@oiartzun.eus.
2. Xedea: Oiarzungo Udalaren eskumeneko administrazio-prozeduretan alderdiek aurkeztutako idatziak izapidetzea.	2º. Finalidad: Tramitación de los escritos presentados por las partes en el curso de los procedimientos administrativos competencia del Ayuntamiento de Oiarzun.
3. Legitimazioa: DBEO 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko beharrezko tratamendua. Legea 39/2015, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.	3º. Legitimación: RGPD: 6.1.c) Tratamiento necesario para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento. Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
4. Hartzailak: idatzia jaso duten administrazio-organoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.	4º Destinatarios: Órganos administrativos a los que se dirige el escrito de acuerdo con lo previsto en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas de las Administraciones Públicas.
5. kontserbazioa. Emandako datu pertsonalak gorde egingo dira helburua betetzeko behar den denboran. Helburuak ekar ditzakeen erantzukizunak biltzeko eta zehazteko, artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritako epealdiez gain.	5º. Conservación: Los datos personales proporcionados se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recaban y para determinar las posibles responsabilidades que se pudieran derivar de la finalidad, además de los períodos establecidos en la normativa de archivos y documentación.
6. Eskubideak: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra aukera ematen du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatze (ahazteko eskubidea), tratamendua mugatzeko, eramangarritasuna izateko eta banakako erabakien xede ez izateko eskubideak erabiltzeko tratamenduaren arduradunaren aurrean. Horretarako, interesdunak Oiarzungo Udalera jo ahal izango du, Done Eztebe plaza 1, 20180; 943490142 telefono-zenbakia eta oiartzun@oiartzun.eus helbide elektronikoa. Datuak babesteko ordezkariekin harremanetan jar zaitezke dpo-dpd@oiartzun.eus helbide elektronikoa.	6º Derechos: El Reglamento General de Protección de Datos permite ejercer ante el responsable del tratamiento los derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión ("derecho al olvido"), limitación del tratamiento, portabilidad y de no ser objeto de decisiones individualizadas. A tal efecto, la persona interesada podrá dirigirse al Ayuntamiento de Oiarzun, con dirección postal en Plaza Done Eztebe, 1 C.P. 20180 y teléfono 943490142 y dirección de correo electrónico oiartzun@oiartzun.eus. Puede contactar con el Delegado de Protección de datos en el correo electrónico dpo-dpd@oiartzun.eus.
7. Interesdunak baimena ematen du datuak tratatzeko, udal honi legez esleitutako eskumenak betetze aldera, bai eta dokumentu hau erantsi zaion administrazio-prozedurarako ere, eta ezingo dira erabili adierazitakoak ez diren beste helburu batzuetarako.	7º La persona interesada presta su consentimiento para el tratamiento de los datos con la finalidad del cumplimiento de las competencias legalmente atribuidas a este Ayuntamiento y para el procedimiento administrativo al que se incorpora el presente documento, sin que puedan utilizarse para otras finalidades distintas de las expresadas.



OIARTZUNGO
UDALA